

## IRITZIA

## zuzendariari

BERRIAk irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Tarte bikoitzarekin idatzitako orrialde batean kabitu behar dute, eta BERRIAk mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izena eta herria adierazita: BERRIA, Martin Ugalde Kultur Parkea, 30012 Andoain. [iritzia@berria.info](mailto:iritzia@berria.info)

## Martin Ugalde, Txillardegik eta Andima Ibiñagabeitia

Bi ohar, bi oroitzapen, bi ekarpen apal Martin Ugalderen oroimena *osatze*ko. Gaur Txillardegik hauxe idatzi du: «Elkar ezagutzen bagenuen ere, Tarnos gure etxean mintzatu ginen buruz buru lehenengo aldiz 1970 urtean». Baina aurretik ere buruz buru mintzatu ziren, 1964an edo 1965ean, Angelun zuten etxean, beste lau erbesterekin batera. Caracasko Eusko Etxeko presidentea zen orduan Martin, eta ETaren zuzendaritzarekin elkarriketatzera joan zen Iparraldera, ezinezkoak ziren hurbilketak egiten saiatzera. Elkarriketa amaitzerakoan, euskara hutsen izan zuten lehenengo batzar politikoa izan zela adierazi zuten Martin Ugaldek. Ziur aski, batzarretik Venezuelara eraman zuten iritzi on bakarra izan zuten hura.

Bestalde, bitxikeria gisa, 1966ko amaieran edo 1967ko hasieran, Martin Ugalderen *Ama gaixo nago* antzerki-lanaren irakurketa egin genuen Caracasko Eusko Etxean Andima Ibiñagabeitiak, Imanol Solabarrietak eta hirurok. Andima, aitatea zen; Imanol, aita, eta

ni, semea. Bolada horretan joan nintzen ni Caracasera; heldu berria nintzen, beraz. Handik gutxira, ordea, Andimak Eusko Etxeko kide izateari utzi zion, Jon Urrestirekin elkartasuna agertzeko. Urresti, *Kirru*, Ondarroako abertzale-euskaltzale amorratua zen, eta egin zuten edo esan zuten zer edo zergatik bota zuten aldi baterako zuzendaritza-batzordeak. Ibiñagabeitiaren, Ugalderen eta Txillardegiren arteko harremanari buruzko zenbait testigantza argitaratu dira, gero gertatuko zena ulertzeko oso interesgarriak. Berrirakurtzea me-reziko luke.

Jose Felix Azurmendi  
Bilbo

## Adiorik inoiz ez, Martin

Astelehen beltza igaro berri duguna. Hego haizeak epeldu ezin izan duen astelehen hotza. Eguzki izpiek argitu ezin izan duten egun goibel eta iluna. Udazkeneko txoriek bezala hegoak astindu eta pixkana goraka eginez, zeruaren urdinean galdu zaiztugu.

Baina zure kantuak iraugo du nahiz eta udaberrian gure artera ez zaren itzuliko. Eta zure kantuaren doinuak lau haizeetara zabalduz, zure ametsak, Euskal

Herrirako eta euskaldunontzako ametsak, gure bihurtuko ditu. Bidelagun eta eredu zarelako, adiorik inoiz ez.

Andoni Iturzaeta  
Tolosa

## Besarkada amultsua, Peio

Bai, badakigu urte luze ez dizugula hitz bakar bat ere eskaini. Zure gutunak iritsi zaizkigu, baina ez dizugu erantzun. Zure kantaldien berri ukan dugu, baina ez gara joan. Domintxinera bisitan joateko gonbita buruan genuen beti, baina inoiz hurbil pasatu arren ez gara autotik jaitsi. Eta orain damu gara.

Hizki hauek irakurtzerik baduzu, Peio, adiskide maitagarri, jakin ezazu gure haurrek zure katekin hezi ditugula. Izan ere, zuk ez duzu gure elerik hartu, baina Amets, Joanes eta Oskia zure ezarritik ateratako doinuekin hazi dira eta hirurak jolastu dira zuk ekarritako panpinarekin. Lur hau munduari kantatzen diozu, lur honetan, anitzek, ezikusiaena egiten duten arren. Besarkada amultsua.

Gaizka Aranguren, Amaia Arrieta eta Amets, Joanes eta Oskia Aranguren Arrieta  
Iruñea

## Enkartazioak

Zeharo itsu eta gor ez den edonork erraz ikusi eta aditu lezake ezen Bizkaiko Enkartazioek ezaugarri bereziak dituzela Euskal Herriaren barruan. Hauxe berau gertatzen da Euskal Herriko beste eskualde askotan, horietako bakoitzak baitauzka berezko ezaugarriak. Enkartazioetan erdara eta euskara mintzatzen dira nagusiki. Erdararen hiru dialekto mintzatzen dira: bertoko erdara, galego eta espainola. Azken dialekto erromaniko hau batez ere inmigrazio, irakaskuntza eta komunikabideen bidez zabaldua. Etorkizunari begira, euskara batua, erdara batua eta ingeles batuaren beharra ikusten du Enkartazioetan.

Euskara batua eta ingeles batua, jadanik irakasten zaizkie gure gazteei, baina erdara batuaren ordez, dialekto erromaniko bat besterik ez dena irakasten zaie (espainola), zeina zeharo kaltegarria baita beste bi dialektoentzat. Espero dut ezen Euskal Herriko agintariak egunen batean gauza hauek zentzatu dituzela, agintari guztiak ohiko duten eran, esan nahi baita, boterearen ematen duen ukazinezko zilegitasunaz. Adeitsuki.

Jose Lavin  
Algorta

## larrepetit

## Katerik ez da eten



AMETS ARZALLUS

Badira egunak telebista leihotik beha ikusten duzunak. Notizia hantari da zure etxe ondoan miaketak egiten. Goizez argitu ez duenetik gau ez ilundu beharrik izan ez duen arte. Katuak ere ikaraz kalean ibiltzeko. Zure begiak bakarrik dabilta hara hona, bastoi horren gibeletik. Auzoko xaharra, *kaxk, kaxk, kaxk*, marmarrea zure belarriraino: *putains de bascois!* Baina telebistak badu zer bait leihoez ez dutena. Leihoez *putains de bascois!* erraten dute, telebistak izenak. Ekraean agertu hizkietan bistaz ezagutu duzu laguna. Lagunaren aita. Lagunaren ama. Adiskide baten alaba. Hirurogei urte zaharrenak, aitak, gazteenak hemeretzi, lagunak. Eta gutxiago genituen leihotik telebista ikusten hasi ginelarik. Hirurogeiek joko dute eta irudi hauek ikusten ariko gara. Eta kontent telebistatik gure leihoa ikusten ez dugun artean.

Aita-amengandik seme-alabatar Txirritarena heldu zait gogora. «Semeak gerran ez hiltzearren mutil zahar geratu nintzan». Eta palestinar suizida baten amaren hitzak kontrapuzan: «Oxala seme-alaba gehiago izan banitu, hala denak suizida sartuko ziratekeen».

Beldurriaren jarrera (ez koldarrarena) eta ausartarena. Joan berri diren egunek beldurriari beldur gehiago ematen diote, eta ausartari ausardia. Bietan hanka bana dugunoi biak erdizka. Baina telebista piztu eta maisu-andereñoak *notizia ona* dela erranka entzutean ez du ematen ez beldurrik, ez ausardiarik. Ez herririk, ez maitasunik, ez amorrurik... ez. Bakar-bakarrik, min ematen du.

## galde-eskeak



IXABEL XARRITON  
SEASKAKO  
LEHENDAKARIA

**Mobilizazioen bidetik jotzea erabaki duzue, zuen eskaerak bete daitezten. Horien bidez, zuen eskaerei irtenbideren bat aurkitzea gertu ikusten duzue?**

Jon Mugirotz

Harreman asko gogortu dira frantses boterearekin azken hilabete hauetan. Horregatik, mobilizazioen bidea hautatu dugu. Gure *karakoil operazioaren* ondotik, hitzordu bat izango dugu prefetarekin, heldu den ostira-lean. Ikusiko dugu zer bait ateraraziko duen. Halere, mobilizazioa zabaldu beharko dugula iruditzen zaigu.

Gure helburuak lortzeko beste mugimendu sozialen laguntza beharrezkoa da. Jada sostengue horiek lortzen hasi gara. Harremanetan sartu gara beste sareen arduradunekin, gureak bezalako arazoak dituztelako. Ez dugu oraindik erabakirik hartu elkarrekin, baina guk Seaskan hortik indar berri bat ateratzea espero dugu.

Bidali zure galderak [iritzia@berria.info](mailto:iritzia@berria.info) helbide elektronikora.

## www.berria.info

Baliagarria iruditzen al zaizu Berdintasuna Defenditzeko Babeslea sortzea, EAEko Lege proiektuak jasotzen duen gisan?

BAI	% 60
EZ	% 40

Arartekoaren moduko erakundearen parekoa bada, ez dira benetan urrats eraginkorrak egingo berdintasunaren alde. Gomendioak ez ezik, beteko diren neurriak ere behar dira administrazio publikoan, baita hortik kanpora ere. **① Miren**

‘Tripa ez da hitzekin betetzen’. Berdintasuna, andreek etxekoandre soldata jasotzen dutenean lortuko dute. Lana bai eta soldatarik ez. **Propaganda gutxiago!! ① Jurramendi**

Ez dakit zer den; egia esan, ez zait interesatzen, baina ezer ez egotea baino baliagarriagoa izan daitekeela uste dut. **① Patxi Perez**

## hitz beste

## Santio-bidean

ANJEL LERTXUNDI

Telefonoz adostu bezala, Orioko San Martin inguruan bildu, eta Erdialdeko Europan hain ugariak diren plaza edo horietako batean elkar ezagutu genuen uenea berri du gure bostekoak. Erromes dator, eleari ele ekin diogu Zarautz arteko Santio bideari. Goiko Kale esnatu berri da, eskaileretako barandak heze daude artean, itsasoak iparraren abisuk dakartza zubiraino, ibai ondoko bidean ez da uren txapla-hotsa besterik entzuten, orain gutxi mardul-mardul zeuden mahastiak horietan hasita daude, atsedan hartu dugu Zarauzko badia ederra oinpean ikusita...

Kurrilo-saldo handi bat hegoalderantzko zeru-bidean; oilar baten jarduna itzal urratu berrien kotarik.

Bidean ez dugula ia inor ikusi harritu zait erromesa. Iragan ingandean bide hautan ibili zen jende-saldoaz hasi naitzaio. «Hainbeste jende Santio bidea egiten?», atera zait. Egingo nuke ez didala erantzuna ulertu.